

ORENDAINGO. berrie



UDAL ALDIZKARIE



2013ko AZAROA 7.alea

2 orria

Egindako bidea eta
falta zaizkigun pausoak

3 orriak

Joko arauak

4-5-6-7 orriak

Ekintza proposamenak

8 orria

Galdetegia
Zer?Nola?



Urte hasieran ekin genion parte hartze prozesua bere amaierara iristen ari da. Urtarrilean Aztiker enpresarekin prozesu hau diseinatzen hasi ginenetik gauza asko gertatu da Orendainen. Gauzarik azpimarragarriena, 54 herritarrek lan taldeetan parte hartu izana. Eskertzekoa da beraiek hiru bilera haietan parte hartzeko egin zuten ahalegina.

Beraien lan taldeetatik ateratako ekintza proposamenei, legegintzaldi hasieran udaletik jasotako galdetegiko emaitzak batu zaizkio. Baita udalbatza honek proposatutako beste zenbait ekintza ere.


Proposamen guzti hauek galdetegi batean

batu ditugu. Galdetegi hau 16 urtetik gorako Orendaindar guztiei banatuko zaie. Lan taldeetan parte hartu duen gazteenaren adinetik gora.

Galdetegi hau herritar guztiok betetzea eskatzen dugu. Batetik, parte hartze prozesu honi merezi duen bukaera emateko eta bestetik, 54 herritarrek egin duten esfortzu horri esker onez guztiok erantzuteko.

Izan ere, Agenda 21a eraberritzen ari garela gogoan hartu behar dugu. Esan nahi da, herrian zein proiektu gauzatuko diren datozen 6/8 urteetan. Erabaki hori hartzerakoan herritarren %100aren ahotsak biltzea da udal honen nahia.

EGINDAKO BIDEA ETA FALTA ZAIZKIGUN PAUSOAK



Zein dira joko arauak?

Galdetegiaren helburua zein ekintza aurrrera atera nahi ditugun eta zein ez erabakitzea da.

Horretarako, galdetegian agertzen den ekintza bakoitzak gutxienez galdetegia betetzen duten guztien %50aren baiezkoa jaso beharko du Agenda 21aren barnean sartzeko. %50 hori lortzen duen ekintza herriko planaren barnean txertatuko da. Lortzen ez duena berriz, ez.

Bestalde, gehien lehenesten diren ekintzek lehenetsuna izango dute udalaren egitekoa antolatzerakoan. Gehien lehenesten diren ekintzak izango dira lehenengo egiten saiatuko garenak.

Hala da bai. Herritarrok aukeratzen ditugun ekintzak burutzen saiatuko da udalbatza hau. Hau da gure konpromezua.

Horrek ez du esan nahi ordea %100ean hori hala gauzatzea posible izango dela ziurta dezakegunik. Egunerokotasunak, krisiaren

egoeraren bilakaerak... nahi eta ez baldintzatuko dutelako udalaren jarduna. Esaterako, lurjauzi bat gertatzen bada zoritxarrez bat-batean, beste asmo batzuk alde batera utzi eta lurjauzia konpondu beharrean suertatuko garelako.

Beraz, hau ez da Olentzerorentzat gutuna. Gure asmo eta intentzio guztiak galdetegi honen emaitzen arabera lan egitea baldin bada ere.

Herritarroi aukeraketa ondo hausnartu ondoren egiteko eskatzen zaigu.

Horretarako prestatu dugun txosten gehigarrian ekintza proposamen bakoitzaren inguruko balizko aurrekontu, mantenu, bestelako ezaugarri eta burutzeko jarraitu beharreko pausuak agertzen dira. Baita udalak duen inbertsionarako diru kopurua ere. Datu orientagarriak dira, baina aukeraketa egiterakoan irizpide bat izaten lagunduko dutelakoan gaude.

Joko arauak garbi izateak prozesuaren gardentasunean laguntzen du.

**Desadostasunen bat edo bestelako irizpiderik inork izango balu, mesedez jakinarazi aste honetan zehar udalera deituz.
(943 65 40 64)**

Aurrera doazen ekintzak eta atzera geratu direnak

Datorren astetik aurrera banatuko dugun galdetegian lantaldeetan jasotako ekintza proposamenak, lege-gintzaldi hasieran egindako galdetegian jaso zirenak, udalbatza honek egiten dituenak eta beste hainbat herritarrek helarazi dituztenak agertzen dira.

Jaso ditugun proposamen guztiak ez ditugu galdetegi barruan sartu ordea. Hainbat proposamen gure eskumetik kanpo daudelako esaterako. Nahi eta ere, aurrera eramanez ezin genituzkeelako. Ondoko taula hauetan agertzen dira aurrera atera eta atzera botatutako ekintzak zein diren. Baita atzera bota izanaren zergatiak ere.

Kontu guzti hauen inguruan jardun genuen horretarako antolatu genuen Herri Batzarrean. Bertara 12 pertsona agertu ginelako eta ordu ezkerotik bestelako proposamenak ere bildu ditugulako, herritar guztion aurrean jarri nahiko genituzke beste behin.

Zergatik? Batetik, norbaitek berak egindako proposamena beste modu batean idatzia beharko lukeela irudituz gero, udalera deitu eta zuzenketak egin ditzakeelako. Bestetik, norbaitek guk atzera botatutako proposamenen batekin arazorik balu, udalak egin beharreko zuzenketak egiteko gai izateko. Baita, proposamenen batek ihes egin izan balu, pertsona horrek udalera deitu eta ahaztutako proposamen hori berriz egiteko ere.

Horretarako astebeteko epea utziko da. Azaroaren 29a. Inolako desadostasun edo zalantzarik izan ezker deitu lasai udalera. (943 65 40 64)

GALDETEGIA

GALDETEGIAN AGERTUKO DIREN PROPOSAMENAK

- ▶ Kale baserria eraberritu
- ▶ Igerileku bat eraiki
- ▶ Merenderoa jarri herrian
- ▶ Eraikin berria
- ▶ Gimnasioa jarri
- ▶ Eltxo Elkarteko teilatua konpondu
- ▶ Baserri hutsei konponbidea bilatu: negoziara bideratu, etxebizitzak egin...
- ▶ Kale baserrian turismoarekin lotutako zerbaite egin.
- ▶ Parkean estalpea jarri
- ▶ Beheko auzora doazen eskailerak jarri
- ▶ Eserlekuak jarri hirigunetik kanpo
- ▶ Rokodromoa jarri
- ▶ Frontoia pintatu
- ▶ Alegia-Orendain-Abaltzisketa kruzeko ikuspena hobetu
- ▶ Herriko sarreran abiadura jaisteko neurriak hartu

- ▶ Udaleko terreno batean baratzak egin eta alokatu
- ▶ Plaza txukundu, arbustoak kendu...
- ▶ Herri bideak asfaltatu
- ▶ Kutsadura akustikoa gutxitu (elizako kanpaien ordutegia)
- ▶ Herriko eraikin publikoetan instalazio solarak jarri, bere finantziazioa udala eta herritarren artean eginik (herritarren kasuan bono bidez erosteko aukera emanda)
- ▶ Purinekin araudi bat sortu herri mailan
- ▶ Erizain zerbitzua herrira ekarri
- ▶ Herrian hainbat zerbitzu izatea (Podologoa, ileapaintzailea...)
- ▶ Inguruko herriekin ikastaroak antolatu
- ▶ Udalak herrian egon daitezkeen lan nitxoengatik inguruko ikerketa egin eta beste herrietako esperientziak ezagutzera eman
- ▶ Idazkaritzako langileak langabetuei lagundu

- ▶ Udala Loatzo musika eskolaren parte izatea
- ▶ Herrian denda bat ireki
- ▶ Esnea komertzializatzeko gunea sortu
- ▶ Kontsumo talde bat sortu
- ▶ Denbora banku edo truke talde bat sortu
- ▶ Kultur irteerak antolatu
- ▶ Ingurugiroarekiko hitzaldiak antolatu
- ▶ Irakur-talde bat osatu
- ▶ Euskal kultura lantzeko ekintzak bultzatu
- ▶ Mendi irteerak antolatu
- ▶ Azoka bereziak antolatu
- ▶ Bigarren eskuko azokak antolatu
- ▶ Herri kirolak sustatu
- ▶ Pelikulak bota noizean behin
- ▶ Dakiguna partekatzea elkarri laguntzak emateko, sare bat sortu horretarako

- ▶ Birziklaia eta berrerabilpen tailerrak antolatu
- ▶ Aniztasun kulturala bultzatu, beste herrialdeetako ohiturei zuzendutako egun bereziak antolatuz
- ▶ Herriko koroa sortu
- ▶ Kirol txapelketa herrikoiak antolatu
- ▶ Santa Ageda eskea antolatu
- ▶ Ibilgailu pribatua partekatze sarea bultzatu
- ▶ Elizari bere hipoteka ordaintzen laguntzeagatik Erretore etxeko terrenoa eskatzea
- ▶ Uraren kudeaketa Ur Partzuergoari pasa
- ▶ Informazio panel elektronikoa jarri
- ▶ Orendaingo Udalak Europan indartzen ari den Guztion Onerako Ekonomiaren mugimenduarekin bat egitea
- ▶ Eraikin berriari Wifi librea jarri

GALDETEGIAN AGERTUKO EZ DIREN PROPOSAMEN ETA IRIZPIDEAK

1.- AGENDA 21EAN SARTU GABE EGINDAKO EKINTZAK

- ▶ Eraikin berriko terraza alaitu.
- ▶ Herri antolaketa eta herrigintza bultzatu
- ▶ Urtean behin adinekoei zuzendutako irteerak antolatu
- ▶ Ariketa fisikoa egiteko aparatuak jarri eraikin berriko behe solairuan
- ▶ Eraikin berriari txoriak kristalen kontra jo ez daitezkeen pegatinak jarri.
- ▶ Animalien tratua txarraren inguruan herritarrei informatu
- ▶ Legeladi aldeketetan bilerak antolatu.
- ▶ Udaleko langileen urteko plangintza osatu.
- ▶ Ordezkaritza politiko eta udaleko langileen arteko koordinazio bilerak egin.

- ▶ Neguan haurrak elkartzeko leku bat edukitzea
- ▶ Ikasketa amaierako proiektua Udalean egiteko aukera eman
- ▶ Baserriak eraberritzeko diru-laguntza posibleen inguruan informazioa zabaldu
- ▶ Informazio interesgarriaren "txokoa" sortu
- ▶ Informazio gune bat jarri Orendaingo zerbitzuei buruzko informazioa emateko herritarrei
- ▶ Baserriaren komisioa sortu
- ▶ Herriko ekoizleen produktuak ezagutzera eman.
- ▶ Tolosaldea Garatzenen zerbitzuak ezagutzera eman herritarrei
- ▶ Topagunera jende gehiago erakarri.

2.- ZUZENEAN AGENDA 21ERA DOAZEN EKINTZAK

- ▶ Sortzen den hondakin kopurua gutxitu
- ▶ Basoetan bertako espezien landaketa bultzatu
- ▶ Aurrekontu parte hartzaileak egin
- ▶ Herri planaren jarraipen batzordea osatu.

- ▶ Auzolana berreskuratu
- ▶ Gazteentzako ekintzak antolatu
- ▶ Landa turismoa sustatu.
- ▶ Energia berriztagarriak sustatu.
- ▶ Udaleko energia kontsumoa gutxitu.

3.- EZ DIRA EKINTZAK, IRIZPIDEAK DIRA

- ▶ Hirigunean nahikoa inbertsio egin da eta auzoetan inbertsioak egitea.
- ▶ Etxe merkeak eraiki.

4.- GURE ESKUMENETIK KANPOKO EKINTZAK

- ▶ Presoen aldeko azken ostiraleko kontzentrazioak antolatu.
- ▶ Belardietan isurtzen den minda kopurua murriztu.
- ▶ Herrian euskara ikasten ari direnei euskaraz hitz egin.

- ▶ Haurrak Abaltzisketako eskolara bideratzea.
- ▶ Energia berriztagarriak jarri esplotazioetan
- ▶ Langileak kontratau esplotazioetan laguntzeko

5.- GAUZATUKO EZ DIREN EKINTZAK

- ▶ Udalean igogailua jartzea. Teknikoki ezinezkoa da.
- ▶ Minda isurketak kontrolatzea. Teknikoki ezinezkoa da.
- ▶ Apaiz etxea ikasleen udaleku izateko egokitu. Ez da gure jabegoa.
- ▶ Tonucciren filosofiaren arabeko parkea egin. Parkea egina dago.

- ▶ Herriko parkean helduentzat gauzak jarri.
- ▶ Ganaderitzan erabiltzen diren produktu kimikoei ze tratamendu ematen zaien kontrolatu. Teknikoki ezinezkoa da.
- ▶ Udalak etxeetara bidaltzen dituen mezuak bi hizkuntzetan izatea. Orendain UEMA barruan dagoen udalerrria da.

6.- EGINDA EDOTA GAUZATZE BIDEAN DAUDEN EKINTZAK

- ▶ Eraikin berriko atea konpondu
- ▶ Orendaingo historia laburtzen duen panel bat jarri eta baita ere bertan herriko argazki esanguratsuenak ipini
- ▶ Luiziak dauden bideak konpondu
- ▶ "Kontuz! Animaliak!" ipintzen duen seinaleak ipini
- ▶ Abaltzisketarako oinezkoentzako herri bideak berreskuratu
- ▶ Frontoiaren erabileran herritarren lehentasuna bermatu
- ▶ Elkartean sukaldaritza ikastaroak egin
- ▶ Udalak euskara klaseak eskaini
- ▶ Gazte lokala sortu
- ▶ Ikastaro proposamenak egin
- ▶ Ikastaroen ordutegi eta egutegi malgutasuna ahalbidetu
- ▶ Liburutegi eta KZ gunearen erabilera hobeto antolatu

- ▶ Liburutegia sarean sartu
- ▶ Gizarte zerbitzuekiko informazio kanalak hobetu
- ▶ Haurrak txingoan jolasteko laukiak egin edo marraztu (zerbait finkoa) saski baloi zelaiaren ondoan
- ▶ Udalak Enirio-Aralarko Mankomunitatean inplikazio gehiago hartu
- ▶ Web orria berritu
- ▶ Herritarren email zerrenda osatzen jarraitu
- ▶ Herrian zuntz optikoa jarri
- ▶ Energia kontsumoa murriztu
- ▶ Energia berriztagarriak bultzatu
- ▶ Herrian zuntz optikoa jarri
- ▶ Sorospen ikastaroak antolatu helduentzat.
- ▶ Topaguneko ekintzak eta funtzionamendua antolatu eta koordinatu.
- ▶ Birziklapen ikastaroak antolatu helduentzat.

7.- JADA BURUTUTA DAUDEN EKINTZAK

- ▶ Herriko produktuak saltzeko gunea.
- ▶ Plenoetako akordioak etxeetara bidaltzea.
- ▶ Herritarren parte hartzea indartu herriko ekintzetan.
- ▶ Internet zerbitzua hobetu.
- ▶ Gipuzkoa Shareren inguruan herritarrak informatu.
- ▶ Udako oporraldian haur eta gazteentzat ekintzak antolatu.
- ▶ Elkartekoei laguntza eskaini herriko festetan.

- ▶ Formakuntza laborala hobetzeko ikastaroak antolatu.
- ▶ Herrian eskola izateko eskaera egin Hezkuntza Sailari.
- ▶ Garraio zerbitzua hobetu.
- ▶ Herriko hondakin-uren kudeaketa hobetu
- ▶ Lanpostuak sortzeko nekazaritza proiektuak lagundu.

Parte hartze prozesuaren finantziazioa

Parte hartze prozesu hau burutzeko 9.543 euro gastatu dira. Herriko langilea, Tolosaldea Garatzeneko zerbitzua, lantaldeei eskainitako hitzaldiak eta materiala ordaintzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako bi diru laguntza lortu dira. Batetik, parte hartze departamentuak emandako 4.000 euro eta bestetik, Agenda 21 eraberritzeko laguntzatik jasotako 1.540 euro. Guztira 5.540 euro jaso ditugu laguntzetatik. Ordaindu beharreko guztiaren %58a.

GALDETEGIA ZER? NOLA?

Oso erraz betetzeko moduko galdetegi bat sortu dugu. Ekintza proposamenak alorretan banatu dira, dagokien gaiaren arabera sailkatuak. Bertan ekintza proposamen bakoitza egitea nahi dugun edo ez aukeratu ahal izango dugu. Nahikoa izango da **“x” bat egitea “bai” edo “ez” aukeraren gainean.**

Sailkatutako taula bakoitzaren azpian, goiko taulan agertzen den ekintzen artean **bat aukeratu eta bere hasieran dagoen zenbakia idazteko eskatuko zaigu.** Modu honetan, herritarrentzat **lehenetsunak zein diren zehaztuko ditugu.**

Galdetegiaren bukaeran, udaleko **zein alorri ematen dugun garrantzi gehiena** erabaki ahal izango dugu. Enpleguko ekintzak lehenetsi behar ditugun, hala zerbitzuetakoak, hala hirigintza-koak...

Zein alor lehenesten duzu?

Atal honetan aztertu ditugun 8 taldeak ordenatu behar dituzue bakoitzari ematen diozuen garrantziaren arabera. Horretarako, 1etik 8ra ordenatu behar dituzue galak, "1" zenbakia garrantzitsuena izanik eta "8" garrantzi gutxienekoa.

4 ENPLEGUA 1 HIRIGINTZA 5 KULTURA 8 UDALA
6 HEZKUNTZA 3 INGURUGIROA 2 1. SEKTOREA 7 ZERBITZUAK

Bukatzeko, eta galdetegitik kanpo, zabor bilketa sistema berria eta udal hau orain artean egiten ari den lana ebaluatzeko aukera izango dugu horretarako aparte prestatutako orri batean.

Galdetegiak udaleko langileak banatuko ditu herritar guztien artean datorren astetik aurrera. Baita jaso ere. Hala nahi duenak, udaleko langilearen laguntza izango du galdetegi bere ondoan betetzen lagunduko diolarik.